



Eurie
Belako
Gaua, 2013

Gaztetasuna, energia, posea eta momentua

JOSU XIMUN ETA LORE NEKANE BILLABEITIA nebarrebak oso gaztetan hasi ziren musika ikasten gurasoek bultzatuta. Solfeo eta pianoarekin aspertzen hasiak ziren, baina punkaren berri izan zutenean konturatu ziren jasotako prestakuntzaz musika egiteko gaitasuna zutela. 2011n sortu zitzaien harra, eta Cris eta Lander ezagutu zituzten, musika ikasitakoak hauek ere. Batez beste 16 urterekin Mungiako Belako auzoan entseatzen hasi ziren; hortik izena.

Pixies, Masive Attack... bertsionatzen hasi eta herrikide Aitor Abiok laguntza eskaini zien. Abio Pilt taldeko teklatu-jotzaile ohia da eta Matxura taldean eta Gaua Produzioak-en dihardu. Teklatuen eraginez, 80ko hamarkadako post-punka hartu zuten jomugan eta maketak grabatu zituzten. Horietako bat Radio 3ko Discogrande saiora heldu eta *Southern sea (beatiful world)* kantua urteko hirugarren onena aukeratu zuten. Gainera, Gazteako maketa lehiaketa irabazi eta BBK Live jaialdi erraldoian kontzertua egin zuten.

Adin txikiko laukotearen izena ezaguna egin eta kontzertu handietan parte hartzen hasi ziren. Bitartean lehen lan luzea kaleratu, eta jarraian etorri dira Donostiako Jazzaldian aritzea, Chrystal Fighters-ekin bi kontzertu eman izana... *Eurie* (Gaua, 2013) diskoak xarma eta kantu onak ditu, baina berebiziko garrantzia izan du, halaber, energia handiko zuzenekoak egiteak, indieren indiferentzia eta iluntasunaren arteko planta izateak, eta Euskal Herrian proiektu berriak ez dagoenaren ustezko sentazioak.

Ezin izan ditut oraindik zuzenean ikusi (jaialdi handietatik kanpo ez dute askorik jotzen!), baina interneten aurkitutako zuzenekoetan ondo dakite agertokia defendatzen eta, misterio kutsuaz gain, energia barra-barra transmititzen. Diskoa *Sea of confusion* abestiak irekitzen du eta noise-poparen adiera gehienak hartzen ditu teklatu eta distortsioak lagunduta. *Haunted house* post-punk arraioa da, melodia eta akorde bera garatuz, oihukatu eta eztanda egin arte. *False step*-en New Order eta The Cure ezkondu eta dantzan jartzen gaituzte. *Southern sea (beatiful world)* mainstream-era salto egiteko new wave perla gardena da. *Molly and Pete* solemneagoa, orkestrala-



goa da, baina finean pop-a. *Vandalism*-en noise-punk akelarreak dantzagarritasuna erabat jaten du, basatia da. *Stop contradictions*-en ere gaztetasunak eta emozioak erotu egiten ditu 77ko punkari intentsitatea gehituz eta gehituz distortsioan (infernuan) erre arte. *Zaldi beltza* bizia, misteriotsua eta jostaria da. *Monday* indartsua da, baxu nabarmena eta The Cure zein Delorean ditu bidaide. Bukatzeko, *Eurie*-k sehaska-kantuen eta ekaitzaren arteko kontrasteekin jolasten du, Nick Cavek egiten duen erara.

Finean, gaztetasuna, amorrua, energia, 80ko hamarkadako post-punkaren misterioa (eta teklatura), dantzagarritasuna, noisearen urgentzia (Pixies errege!), agertokia, arte-estetika eta posea ondo kudeatzen dituzte. Nik ez dut gehiago eskatzen! Gainera, ze arraio, laudorioek kaltetzen ez badi-tuzte (hori ere kudeatu beharra dago!), oraindik 18 urte besterik ez dituzte! ■

Iker Barandiaran

